

Eta zuk, zer dakizu ludopatiaz?

AUSAZKO JOKOEN ARRISKUA EZAGUTZEKO GIDA



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREHABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Seguratasun Saila/Secretaría
de los Riscos/Jeux et Jeux

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceministerio de Seguridad
Dirección de Juego y Espectáculos

Edizioa

1. a 2021eko abendua

Internet

www.asajer.org

Egilea

ASAJER.

Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkartea

Laguntzailea

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

Itzulpena

HIGAN

Diseinua eta maketazioa

Begoña Paino Ortuzar


Lege-gordailua

XXXXXX



Aurkibidea

Aurkezpena. Eta zuk, zer dakizu ludopatiatz?	5
Has gaitzen hasieratik. Datuak	7
Eta ausazko jokoak? Presentziazko jokoa eta online jokoa	10
Ausazko jokoen erabilera-neurriz gaineko erabilera	13
Ausazko jokoekiko adikzioa	16
Zein eragin ari da arazo hau gazteengan?	19
Nola garatzen da ausazko jokoekiko adikzioaren arazoa?	21
Ausazko jokoen gehiegizko erabileraren ondorioak	25
Nola jakin daiteke ausazko jokoetan neurritz gain jokatzeko delak?	28
Zer ari da gertatzen gazteekin?	31
Emakumeak eta gizonak, berdin?	34
Baliabideak	36



A person wearing a dark hoodie is seated at a table, playing cards. They are holding two cards: the Ace of Clubs and the Ace of Hearts. The scene is dimly lit, with a warm orange overlay. In the background, there are blurred lights, possibly from a casino or a game room. The person's hands are visible, one holding the cards and the other near a stack of chips on the table.

Eta zuk,
zer dakizu
ludopatiaaz?

1. Aurkezpena

“EZ DIRA ESPEZIEKO INDARTSUENAK ETA ADIMENDUNAK BIZIRAUTEN DUTENAK, BAIZIK ETA ALDAKETEN AURREAN MALGUTASUN ETA EGOKITZAPEN HANDIEN AGERI DUTENAK”

(Darwin)

LUDOPATIA hitza entzuten denean, herritar gehienek badakite zertaz hitz egiten den. Herritarrek arazo honek kaltetutako pertsona baten kontakizuna entzuten dutenean zer-nolako eragina duen pentsa dezakete galera ekonomikoan eta ingurunean zer-nolako eragina duen azpimarratuz.

Baina gauza bat Ausazko jokoekiko adikzioa zer den “jakitea” eta beste bat zer den “ulertzea” da.

Dagoeneko urte asko daramatza ASAJER elkarteak gai hori herritarrengana hurbilduz, arazoa hobeto ezagutu dadin eta ausazko jokoan aurrean erabakiak hartzerakoan laguntza eman dadin, neurritz gain erabilia arazoak ekartzen dituen jokabide bati buruzko kontzientzia ernatzea bilatuz.

Gida honen bidez, eduki sinple eta argi batekin, ausazko jokoekiko adikzioa egiaz zer den jakin eta ulertu ahal izatea da gure asmoa, hots, bidea nola abiatzen den, zer-nolako eragina duen eta, zergatik ez, arazoak ez izateko zer egin daitekeen.





Has gaitezen
hasieratik.
Datuak

22%

31%

2. Datuak

Joko Antolaketarako Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera (2018-2019):

- Euskadin (2018) **208** milioi euroko kopurua xahutu zen **presentziazko jokoan** (3. postua Estatuko Autonomia Erkidegoen sailkapenean).
- **Online Jokoan**, berriz, **155** milioi euro xahutu ziren.

Jokoaren Euskal Behatokiak jasotako datuek (Jokalarien Prebalentzia, Ohiturak eta Profilak Euskadin, 2020) adierazten dutenez:

- Herritarren % 70,5 gutxienez behin jokoan edo apustuan aritu da azken urtean.
- Inkestan parte hartu duten pertsonen % 24,7k aitortu duenez, jokoan 18 urte bete aurretik hasi da.
- Jokatzeko arrazoi nagusiari dagokionez % 65,8k dirua aipatu dute, % 18,6k tradizioagatik egiten du eta % 12,5ak dibertsioa bilatuz. Adina kontuan izanik, gazteek dibertsioa bilatuz eta dirua irabazteko jokatzen dute.
- Emakumeen artean tradizioz jokatzen dutela nabarmendu behar da eta gizonen artean dirua irabazteagatik.



Eta zuk, zer dakizu ludopatiaaz?

AUSAZKO JOKOEN ARRISKUA EZAGUTZEKO GIDA


- Emakumeek Loteria Nazionalaren moduko jokoetan jokatzen dute gehiago eta gizonen artean Loteria primitiboak nabarmentzen dira.
ONCE jokoan eta berehalako loterietan ere emakume gehiago aurkitzen ditugu.
- Kiniela eta online bidezko kirol-apustueta gizonak nabarmentzen dira.



EUSKADIN (2018)

PRESENTZIAZKO JOKOA **208** Millones €

ONLINE JOKOA **155** Millones €





Eta ausazko jokoak?

Presentziazko jokoa
eta online jokoa

3. Presentziatzko eta online jokoa

AUSAZKO JOKOETAN emaitza (irabazi ala galdu) ez dago soilik jokalariaren trebetasunaren baitan, zoriak ere bere zeresana du.

Joko horien artean daude hauek: Estatuko Loteria eta Apustuak proposamen guztietan, ONCE erakundearen jokoak, Kinielak, makina txanponjaleak, bingoa, kasinoko jokoak, karta-jokoak, esate baterako, pokerra, erruleta, kirol-apustuak, hipikako apustuak, etab.

Ausazko jokoa PRESENTZIAZKO MODUAN ez ezik, ONLINE JOKO izendatzen dugunean jardenez JOKATZEKO aukerak iraultza ekarri du.

PRESENTZIAZKO JOKOA

Jardun mota honetan jokatu ahal izateko (jokoa erosi) espazio fisiko batera sartu behar da, esate baterako, bingo-aretoak, kasinoetara, ostalaritzako lokaletara, joko-aretoetara, apustu etxeetara, Loteria Nazionaletako administrazioetara edota ONCE erakundearen produktuen salmentarako baimendutako guneeetara. Joko mota hori establezimenduko eta ausazko jokoen saltzaile diren pertsonen ordutegiak baldintzatuta dago.

ONLINE JOKOA

Joko mota horretan edozein gailu digital baliatuz (ordenagailua, tableta, telefono mugikorra, etab.) aritu daiteke edo eros daiteke, eta ausazko jokoetan eta apustuetan aritzeko orrialde kopurua amaigabea da.

Online Jokoak dituen ezaugarri jakin batzuen ondorioz jokatzeko modua erakargarriagoa da (gazteek jardun mota honen alde egiten dute) eta, ziurrenera, adikzio handiagoa sortzen du.

- Anonimatua eta Intimitatea. Edonon joka daiteke, inork zer egiten den jakin gabe.
- Irisgarritasuna: Egunean 24 orduz, astean 7 egunez urteko 365 egunetan. Beti dago irekita.
- Ingurunetik deskonektatzea errazagoa da.
- Apustuaren (jokoa) eta emaitzaren arteko tartea azkarragoa da.
- Gaur egun, online eran joka daiteke presentziazko moduan jokatzeko den ia edozein jokotan. Horrek esanahi du ez dagoela “ordutegi aldetiko inolako trabarik” erosketak egiteko edota ausazko jokoetan zein apustuetan aritzeko.
- Ausazko joko bidez arazo eta kezketatik ihes egiteko aukera areagotu egiten da, izan ere, edonoiz eta edonondik aritu daiteke.





Ausazko jokoaren
erabilera-neurriz gaineko
erabilera

4. Erabilera-neurriz gaineko erabilera

Jokoan inplikatu eta ausazko jokoetan eta apustuetan aritzeko aukera egunero sortzen da, baina...

NOLA INPLIKA DAITEKE PERTSONA BAT AUSAZKO JOKOAREKIN?

Jokalari soziala

Dibertitzeko jokatzen du, entretenimenduz, jendearekin harremanetan izateko, jokabidearen gaineko erabateko kontrola izanik, eta nahi duenean utzi diezaioke jokatzeari, horren ondorioz ondoezik eragin gabe. Ausazko jokora bere aukeren arabera dagoen diru kopuru bat bideratzen du eta ia beti aurrezarrita. Ez du gezurrik esaten jokoarekiko bere jokabidearen inguruan eta jokabide horrek ez dakarkio inolako arazorik (ekonomikoak, familiakoak edota lanekoak).

Arazoa duen jokalaria

Maiztasun handiagoz jokatzen da, zenbaitetan arazo ekonomikoak ekar ditzakeen diru gastu batekin. Bere jokabidearen gainean kontrol urriagoa du eta jokatzeoko grinaren



INPLIKATU
ONDO PASATZEA
JOKALARIA
SOZIALA
DIRUA
ARAZOAK
EZKUTAKETA
JOKABIDEA
PATOLOGIKOA
BEHARRA
GEZURRAK
ONDORIOAK
FAMILIA

ondorioz denbora eta diru gehiago xahutzen du ausazko jokoan. Familiarekin zenbait arazo sortzen has daitezke (diruarekin egiten den gastuaren ondorioz, ageri ditzakeen zenbait jarrera edo portaeren eraginez). Zenbait unetan jokabidea ezkuta daiteke.

Jokalari patologikoa

Jokoak izaera soziala eta entretenimendukoa galtzen du, eta premia bilakatzen da. Egunerokotasuneko jardun normala oztopatzen du eta arazo serio eta larriak ekar ditzake ekonomikoki, familian, sozialki, lanean eta akademikoki. Jokatzeko jokabidea uzteko zailtasunak daude. Gezurrak, jokoaren inguruko jokabidea eta haren ondorioak ezkutatuz.



Ausazko jokoekiko Adikzioa



5. Adikzioa

la guztiok entzun dugu Ludopatiari edota ausazko jokoekiko adikzioari buruz hitz egiten, baina **benetan ba al dakigu zer den? Zertan datza?**

Ausazko jokoekiko adikzioa PORTAERAZKO ADIKZIO bat da, DSM-5 eskuliburuaren arabera (2013) ezaugarri hauek dituena:

- Jokoarekiko gehiegizko kezka.
- Apusturako gero eta diru gehiago xahutzeko premia, nahi den kitzikadura lortzeko.
- Jokoaren portaera kontrolatu edo geldiaraztean etengabe porrot egitea eta ezinegona helburu hori bilatzen denean.
- Jokoaren jokabidea murrizten edo geldiarazten saiatzean egonezin edo suminkortasuna.
- Ausazko jokia egoera emozional negatiboetatik ihes egiteko erabiltzea.
- Ingurune hurbileneko pertsonekin sistematikoki gezurretan aritzea jokoaren jokabidea eta hartatik eratorritako arazoak ezkutatzeko.
- Portaera horren ondorioz pertsonen arteko harremanak arriskatu edo galtzea.
- Gainerakoek egoera etsigarrietatik irteteko baliabide ekonomikoak ematen jarraituko dutela uste izatea.



LEKUKOTZAK

“Nire bizimodua halakoxea zen jokatzan nuenean. Iratzargailuak jotzen zuenean esnatu egiten nintzen eta hauek ziren nire lehendabiziko pentsamenduak: Zer gertatu zen atzo? Dirua atera al nuen? Zein ekitaldi daude apustuan aritzeko? Nori zor diot dirua? Hori izaten nuen buruan egun guztian. Apustuekin kezkatuta oheratzen nintzen eta pentsamendu berarekin esnatzen nintzen. Nekagarria zen. Kitzikaturik bizi nintzen. Egun berean emozio andana senti nezakeen: Zoriontsu sentitzen nintzen irabazten nuenean eta beheraldiak izaten nituen galtzen nuenean. Lehenengoa handiagotu egiten nuen eta, bigarrena, kamuflatu”.

Gizon kaltetua, 30 urte

“Dirurik ez nuela eta jendearekin ez nintzela egoten ikusi nuenean jabetu nintzen arazoaz. Kobratu bezain pronto dirua xahutzen hasten zarenean eta diru gehiago lortzeko gezurretan hasten zarenean. Beti pentsatzen duzu jokatzu berreskuratuko duzula diru hori, baina hori ez da gertatzen. Egoerak gainezka egiten dizu eta hutsaren hurrengoa sentitzen zara. Egia esan, oso zaila da gertatzen ari zaizuna onartzea”.

Emakume kaltetua, 37 urte



A man with a beard and a light-colored shirt is sitting at a poker table. He is looking intently at the cards in his hand. On the table in front of him are several stacks of poker chips in various colors (red, black, green, white) and a few playing cards. The background is slightly blurred, showing a window with curtains. The overall lighting is soft and focused on the man and the table.

Zein eragin ari da
arazo hau gazteengan?

6. Gazteak

Jokoaren Euskal Behatokiaren datuen (Jokalarien Prebalentzia, Ohiturak eta Profilak Euskadin, 2020) arabera:

- Euskadiko herritarren % 2,2k ausazko jokoekin arazoren bat izan du bere bizitzan zehar. Beren bizitzan zehar arazoak izan dituzten 40.000 pertsona inguruz hitz egiten arituko ginateke.
- % 1,1ak arazoak izan ditu azken urte honetan zehar. Gaur egun arazo hori bizitzen ari diren 18.000 pertsona inguruz hitz egiten arituko ginateke.
- Ikerketan aipatzen denez, “jokoarekiko arazoaren presentzia aldatu egiten da jokatzen den jokoaren arabera”. Handiagoa da arazo hori joko jakin batzuetan, esate baterako, online pokerrean, online bidezko kirol-apustuetan, kasinoan, bingoan, makina txanponjaleetan edota apusturako aretoetan.
- Sexua kontuan izaten baldin badugu, gizonen % 2,9k mendekotasun mailaren bat garatu du beren bizitzan zehar, eta emakumeen kasuan portzentaje hori % 1,3koa izango litzateke.
- Ausazko jokoekin lotutako gehiegikeriazko jokabideak areagotu egiten dira adinak behera egin ahala. 18 eta 24 urte arteko gazteen artean 5 bider handiagoa da jokabide hori (% 4,5) 65 urte edo gehiago dituztenen artean baino (% 0,9). Azalpenetako bat gazteek kuttunen dituzten joko-motei so aurki daiteke.



Nola garatzen da
auzazko jokoeikiko
adikzioaren arazoa?

7. Nola garatzen da adikzioa?

Jokoarekiko adikzioaren garapenak patroï bati jarraitzen dio, eta Robert Custerren (1984) arabera fase hauek ditu:

IRABAZIAREN FASEA

Ausazko jokoari ez zaio denbora gehiegi eskaintzen. Sariaren bat lortu ohi da eta gertaera horiei balioa eman ohi zaie. Irabazia baikortasunez bizi ohi da. Pertsonak fase horretan eman dezakeen denbora hilabete batzuetatik hasi eta hainbat urteetarainokoa izan daiteke.

GALERAREN FASEA

Aurreko fasetik eratortzen den jarrera baikorraren ondorioz jokoan inbertitzen den diru kopurua areagotuz doa pixkanaka. Eta ez kopurua soilik, baita denbora ere (ez jokoan soilik, baizik eta baita harekin lotutako informazioan ere). Eta galerak areagotuz doaz. Ausazko jokoan aritzea ohiko bilakatzen da pertsonaren bizimoduan. Gero eta diru gehiago behar izaten da jokatzeko eta, jadanik, berezko dirurik ez dagoenean familiari edota inguruan dituen pertsoneri eskatzen hasten da, edo maileguak eskatzen



IRABAZIA
BAIKORTASUNA
SARIA
AREAGOTU
MAILEGUAK
ARAZOAK
UNE TXARRA
HIPERSENTSIBILITATEA
ALBORATU
SUMINKORTASUNA
ANTSIETATEA
ETSIPENAREN
LAGUNTZA

ditu. Dirurik ez duen jokalaria dirua soilik jokoaren bidez lor daitekeela uste du. Eta horren ondorioz gurpil zoro batean sartzen da, non galerak, galdutakoa berreskuratzeko saiakera, dirua, jokia edota galera gehiago errepikatzen diren. Familiako harremanak narriatu egiten direla ikus daiteke, lanean arazoak agertzen dira eta baita arazo sozialak ere, jokalaria ondoeza sentitzen du... Lapurretaren bat egon daiteke eta maileguen bidez ere eskuratzen da dirua. Hau une txar bat da eta jokalaria bere arazoaz hitz egin eta jokatzeari utzi egingo diola esan dezake. Baina “une txarra” igarotzen denean, berriro jokatzeari gerta daiteke.

BERRESKURATZEKO FASEA


Jokalaria jokatu egiten du eta hori da garrantzitsua. Familia, lana eta lagunak alboratu egiten dira.



Zenbat eta gehiago jokatu orduan eta handiagoa da diruaren premia eta bere burua gurpil zoro batean murgilduta dago. Horren ondorioz, legezko arazoak iristen dira, esate baterako, funtsik gabeko txekeak erabiltzea, laneko dirua edota familiarena lapurtzea. Premia horren ondorioz mailegua eskatzen eta hura ez ordaintzetik eratorritako zorrak pilatu egiten dira. Suminkortasuna eta hipersentsibilitatea areagotu egiten dira. Psikologikoki zein fisikoki gaizki dago jokalaria. Etsita daude pertsonak dira, depresioarekin edota hersturarekin lotutako arazoak dituztenak. Beren buruaz beste egitean pentsatzen dute, baina hitz egin eta laguntza eskatzeko unea dela ere ikus dezakete.

ETSIPENAREN FASEA

1991n, Lesieur eta Rosenthalek laugarren fasea aipatu zuten, non adierazten zuten, jokalariek jadanik ez dute jokorik gabeko itxaropenik ikusten. Murgilduta dauden zirkulutik ateratzen saiatzeko jadanik ezin dela ezer egin uste dute.





Ausazko jokoen
gehiegizko erabileraren
Ondorioak

8. Ondorioak

ARAZO EMOZIONALAK

Tristura, herstura, depresioa, suminkortasuna, apatia, autoestimu baxua.

ARAZOAK FAMILIAN

Gezurrak, arazoaren errealitatea ezkutatzek ondoeza adierazgarria sorrarazten du familian. Mesfidantza sortu eta areagotzen da. Komunikazio arazoak daude, harremanetan zailtasunak daude, urruntasuna eta haustura ekar dezaketenak.

ARAZO EKONOMIKOAK ETA LAN ARLOAN

Laneko arreta eta errendimendua murriztu egiten dira, eta baita arlo akademikoan ere, kontzentrazioa urritu egiten da. Motibaziorik eza, justifikaziorik gabeko huts egiteak edo gezurrekin justifikatutakoak ageri dira. Gerta liteke ikasketak edota lana uztea eta, area, baita kaleratzea ere.

ARAZO SOZIALAK

Isolamendua, zaletasunak galtzea, denbora libreko jarduerarik ez egitea, lagunengandik urruntzea, harreman adierazgarriak galtzea.



Eta zuk, zer dakizu ludopatiatz?

AUSAZKO JOKOEN ARRISKUA EZAGUTZEKO GIDA

ARAZO LEGALAK

Dirua lortzearen etsipenaren ondorioz lapurretak, maulak edo delituzko beste zenbait jardun burutu daitezke.

ARAZO EKONOMIKOAK

Zorrak areagotuz doaz jokatzeari uzten ez zaion bitartean. Ordainketak ez dira gauzatzen, ondareak galdu egiten dira, diru apur bat iristean kontrolik eza nagusitzen da, arazoak mailegu-emaileekin, etab.

BESTE ZENBAIT ADIKZIO

Zenbaitetan, joko patologikoa tabakoa, alkohola edo beste substantzi batzuk (kokaina, marihuana, haxixa, etab.) neurriz gain kontsumitzearekin lotzen da.

DEPRESIOA
HAUSTURA
APATIA
HARREMANAK
ANTSIETATEA
KOMUNIKAZIOA
ZAILTASUNA
MESFIDANTZA
SUSTANTSIAK
DELIKTIBOA
MAULAK
KONTROLIK EZA
MAILEGU-EMAILEAK

The background is a solid purple color with a pattern of falling US dollar bills, appearing as if they are being dropped from above. The bills are in various orientations and positions, creating a sense of motion and abundance.

**Nola jakin daiteke
ausazko jokoetan neurritz
gain jokatzen dela?**

9. Nola jakin neurritz gain jokatzen dela?

PORTAERAN

- Gero eta diru gehiago jokatzen da.
- Denbora gehiago ematen da jokatzen (jokatzen/jokoan pentsatzen eta jokoa ikusten).
- Jokatzeari uzteko zailtasunak ageri dira.
- Planeatutakoa baino diru gehiago bideratzen da jokora.
- Jarduerak jokoaren baitan garatzen hasten dira.
- Gezurrak.

Jokoarekin lotutako pentsamendu errepikakorrek: berriro jokatzea, jokoaren gaineko kontrola, egingo diren jokaldi motak, zein apustu izango den onuragarrien, emaitzak ikustea, etab.

PENTSAMENDUAN



Zer ari da
gertatzen
gazteekin?

10. Eta gazteak?

Gazteak ausazko jokoetara eta apustuetara hurbiltzen ari dira eta hori ez da soilik azken urteetan gertatu (kirol-apustuak eta online jokia agertzearekin batera). Gazteak duela urte askotik jokatzen zuten makina txanponjaleetan, hori hor zegoen errealitate bat zen. Eta zenbaitetan jokabide hori neurritz gain eta kontrolik gabe ematen zen eta ematen da.

Eta ezin dugu aipatzeke utzi ausazko jokora eta apustuetara hurbiltzen ari diren adin txikiko pertsonak daudela eta ausazko jokoekin adin goiztiarretan, adin txikikoak izanik, hasi ziren jokalaria patologikoak daudela.

Hauek dira gazteak ausazko jokoetara hurbiltzeko arrazoietako batzuk:

- Dirua irabaztea.
- Jakin-mina.
- Entreenimendua.
- Emozio berriak izateko eta ezohiko zerbait egiteko asmoa.



Eta zuk, zer dakizu ludopatiaz?


AUSAZKO JOKOEN ARRISKUA EZAGUTZEKO GIDA

Hauek dira ausazko jokoekin arazoak izatea eragin dezaketen faktoreak:

- Ausazko jokoarekin izandako lehen esperientzietan dirua irabaztea.
- Asperdura jasateko gaitasun urria izatea.
- Jauzkorra izatea.
- Emozio handiak bilatzea.
- Zenbait emozio esperimentatzeko erakarpena, esate baterako, arriskua.
- Dirua kontrolatzeko eta ekonomiaren plangintza egiteko arazoak izatea.
- Familia-ingurunean ausazko jokoekin, alkoholarekin edota bestelako drogekin lotutako arazoen aurrekariak izatea.


“Nire arazoa 17 urte nituenean hasi zen. Interneten diru pixka bat jokatzen hasi nintzen, pixkanaka zurrunbiloan sartu eta asko galdu nuen arte. Sarean apustuan bi urte inguru pasa ostean, beti kirol-apustuetan, ia urtebetez utzi nuen. Ondoren, Gasteizko apustu-aretoetan sartu nintzen eta han hasi zen nire gainbehera. Bizpahiru urtez apustuan etengabe aritu nintzen, lanean irabazten nuen diru guztia bertan galduz. Apustuan jarraitu nuen azken zentimoa ere galdu arte. Nire anaiak eta gurasoek sai edo zazpi urte luzez murgilduta egon nintzen zulotik irteten saiatzen lagundu ninduten”

Gizon kaltetua, 27 urte

A hand holding a smartphone, with a blurred background of bokeh lights. The text is overlaid on the left side of the image.

Emakumeak eta gizonak,
berdin?

11. Emakumeak eta gizonak, berdin?



EMAKUMEAK

- Jokoarekin beranduago hasten dira harremanetan.
- Adikziozko nahasmenduaren progresioa azkarragoa da.
- Emakumeek maizago izan ohi dute afekziozko nahasmendu bat.
- Emakumeen artean bakardadea eta arazo pertsonaletatik ihes egitea izaten dira ausazko jokoetara hurbiltzea eta adikziozko balizko jokabide bat abiatzea eragiten duten ezaugarriak.
- Emakume batek ausazko jokoekiko adikzioa duenean ulermena askoz ere apalagoa da, bere jokabidea gehiago gaitzesten da. Estigma sozial bat ematen da.
- Aurrekoa kontuan izanik, emakumeek denbora gehiago behar dute beren arazoa onartzeko, eta horrek laguntzaren bilaketa atzeratu egiten du eta ia beti bakarrik egiten du bide hori.

GIZONAK

- Ausazko jokoekiko adikzioa ohikoagoa da gizonen artean.
- Ausazko jokoekiko harremana lehenago izan ohi dute.
- Adikziozko nahasmenduaren progresioa “motelagoa” izan ohi da.
- Gizonek maizago izan ohi dute substantzien kontsumoarekin lotutako nahasmendu bat eta nortasunaren nahasmendu antisozial bat.
- Jokorako beren jokabidea emozioen bilaketarekin lotuta egon ohi da.
- Kaltetutako gizon bat “gaixotzat” hartzen da eta ez da horrenbeste gaitzesten.
- Laguntza bila datorren gizona norbaitek lagunduta bertaratu ohi da eta sarritan familiak bultzatuta.



BALIABIDEAK

● ERREHABILITATZEN ARI DIREN JOKALARIEN ARABAKO ELKARTEA (ASAJER)

Araba Jenerala, 25-1, eskuina. 01005 Gasteiz

Telefonoa: 945 140 468

Helbide elektronikoa asajer@telefonica.net

www.asajer.org

● ADIKZIOEN ORIENTAZIO ETA TRATAMENDU ZENTROA)

Julian Arrese kalea 5, 01010 Gasteiz

Telefonoa: 945 294 040

Helbide elektronikoa cota.rsma@osakidetza.eus

● SEGURTASUN SAILA. JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA EUSKO JAURLARITZA

Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz

Telefonoa: 945 018 879

Helbide elektronikoa juegoyespectaculos@euskadi.eus

www.euskadi.eus/gobierno-vasco/juego-espectaculos

● OSASUN PUBLIKO ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZA EUSKO JAURLARITZA

Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz

Telefonoa: 945 019 201

adicciones@euskadi.eus

